



**OÑATI**  
dabilen herria

# 2019RAKO UDAL AURREKONTUAK

## INFLEXIO PUNTU BAT MARKATZEN DUEN AURREKONTU PROIEKTUA

Gaurko Osoko Bilkura honetan onartu ditugun 2019rako UDAL AURREKONTUAK azaltzerakoan, lerro nagusietan honokoa adieraziko genuke:

2019 aurrekontuak **inflexio puntu bat** markatzen du. Inbertsio plan bat aktibatzen da, kiroldegiaren berriztapena eta Olaiturri gunearen egokitzapenerako. Alde batetik 2.500.000€ aurreikusten dira Kiroldegiko obraren exekuziorako. eta, 1.000.000€ Olaiturriko proiektuaren exekuziorako.

**Auzoen eraberritzea eta irisgarritasunaren aldeko apustua** ere mantentzen da. Olakua eta San Lorentzorako fase berriak gauzatzeko 440.000 EUR aurreikusi dira.

Azpimarratu beharrekoa da iragan 8 urteetan inbertsio politika apala eraman dela, Oñatiko Udalaren **zorpetze maila minimo historikoetan** ezarritz.

Inbertsioez gain, **gastu soziala indartu** egiten dela azpimarratu beharrekoa da. Gizarte larrialdiak eta Laguntza psikosozialeko partidak indartu egiten dira. Baita etxez etxeko adineko pertsonak zaintzeko zerbitzua ere. Azken hau %20 igotzen da 720.000 eur arte.

Bestalde, zeharlerrokoak diren **Berdintasuna eta Partaidetza departamenduak ere indartu egiten dira**, Lehenengo kasuan lanpostu publikoa betetzeko deialdia egingo da eta bigarren kasuan 2019/2020rako konprometituriko 500.000€-ko diru funtsa azpimarratu behar da. Mila

herritarretik gora izan dira prozesuan parte aktibo eta honek Udal Gobernuak egindako apustu estrategikoa indartu egiten du.

Kopuru aldetik esanguratsuak ez diren arren, berritasun moduan aipagarriak dira:

- **HAZ edo herritarren arreta zerbitzua** egokitzeko lanak (150.000): hilabetetako barne lanketa sakon baten ondoren herritarrak eta administrazioaren arteko harremanak era berri baten abian jartzeko espazioa egokituko da udaletxean..
- **Aurreko Mendiko** eremuko paisaia balioan jartzeko **paisaia plana**.(30.000)
- **Kioskoa eta inguruak** txukuntzeko **proiektua** ere bai (20.000)
- **Katastroko mugak digitalizatzeko** egitasmoa (40.000)

22,3 milioi euroko aurrekontua da gaurkoan onartu dena, aurreko urtekoarekiko %19 hazi delarik. Goian aipatu bezala, inbertsio plan bat aktibatzen da, finantzaketarako 6,05 milioko mailegu batekin. Nolanahi ere mailegu guzti horren beharrik ez izatea aurreikusten da 2018ko ekitaldiko emaitza positiboa espero delako.

Azkenik, 2019ekitaldiko finantza oreka positiboa izatea aurreikusten da 548.372,71€ tan. Udalaren sarrera arrunta eta gastu arruntaren diferentzia, alegia.